



Eusko Jaurlaritzak Ekintzailtzaren Euskal Zerbitzua sortuko du urrian

Zerbitzu berriak euskal ekintzaileen informazio eta aholkularitza bilaketa erraztu eta izapide burokratikoak murriztuko ditu, Patxi López lehendakariak Emprende 2011 foroaren inaugurazioan aditzera eman zuen bezala. Topaketa horrek 2.500 pertsona baino gehiago bildu zituen irailaren 14an Barakaldoko BECen, eta horien artean ASLEren ordezkariak izan ziren.

INFORMAZIO +

... gainera

GIZARTE EKONOMIAKO EUSKAL BEHATOKIAK BARNE- ERREGIMENENKO ARAUTEGI BERRIA DAUKA

Iragan uztailaren 8an Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren (GEEB) barne-erregimeneko arautegi berria onartu zuten EHUKO Zuzenbide Kooperatiboko eta Gizarte Ekonomiako Institutuko (GEZKI) Urteroko Batzordean. Araudi horrek GEEBren kudeaketa eta funtzionamendua erraztuko duen sistema bat ezartzeko helburua dauka, eta erakundearen sendotasuna eta beharrezkoak diren malgutasuna eta dinamismoa uztartu nahi ditu. Horregatik, Behatokiaren egitura organikoaren funtzionamendua zehazten eta arautzen ditu arautegiak, modu horretan funtzioak argitzeko eta eskuduntzak banatzeko.

[Informazio gehiago](#)

Fiare banku etikoak bere lehenengo bosturtekoaren balantze positiboa aurkeztu du

Fiare banku etikoak bere lehenengo bost urteko ibilbidearen balantzea aurkeztu du, oso emaitza positiboekin. Etorkizunera begira, gero eta onarpen handiagoa duen eta finantza sistemaren krisiaren aurrean bideragarritasuna erakusten duen banku eredu honengatik apustu egiten jarraituko dute. Hazteko eta proiektu berriak jorrazteko fondo gehiago lortzea da eronka, orain ere.



INFORMAZIO +

MONDRAGONEK KRISIARI AURRE EGITEKO DUEN GAITASUNA TXALOTU DU KOOPERATIBEN EUROPAKO KONFEDERAZIOAK

Mondragonen eredu kooperatibista txalotu dute Espainiak pairatzen duen krisi ekonomikoari aurre egiteko gaitasuna erakutsi duelako. Erabakitzeko sistema demokratikoan oinarritutako negozio eredu du euskal kooperatiba taldeak eta 65 urte baino gehiago iraun ditu horrekin. Gainera, beste enpresa batzuek baino hobeto gauditu dituzte atzeraldiak, Elkarlaneko Kooperatiben Europako Konfederazioak (CECOP) aditzera eman duenez. Taldeko langileek erabakiak hartzerakoan duten inplikazioa (eurak ere jabeak baitira) erabakigarria da krisiaren aurkako estrategiak diseinatzeko garaian, esan du CECOPek.

LKS INGENIARITZAK ASIAN DUEN PRESENTZIA INDARTU DU HIRU EZARPEN BERRIREKIN

LKS kooperatibak Asian duen presentzia sendotu du, hainbat enpresek euren nazioartekotze planak gauzatzeko kontratatu baitute. Hitzarmen horien artean nabarmentzekoa da Fagor



Gureak Taldeak 40 lanpostu sortuko ditu automobilgintzaren sektoreko GKB enpresarekin sinatutako hitzarmen bati esker

Gureak Taldeak Bergaran dituen instalazioak handituko ditu 3.000 metro koadroko industria-nabe berri batekin. Bertatik, GKN Legazpin forjatutako 70.000 pieza bidaliko dituzte egunero GKNk Europako hegoaldean dituen lantegietara.

INFORMAZIO +

REAS Euskadik eta Gizateak gizarte ekonomia sustatzeko proposamenak egin dizkiote Lakuari

Reas Euskadiko eta Gizateako arduradun nagusiek Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politika, Lan eta berdintasun Batzordearekin elkartu ziren gizarte ekonomiaz duten ikuspegia azaldu eta Euskadiko Hirugarren Sektorea bultzatzeko proposamenak aurkezteko.



INFORMAZIO +



Ulma Taldearen 50. urteurrena

Oñatiko kooperatiba taldea Espainiako iparraldeko enpresa talde handienetako bat da. Sei kooperatiba-sozietatez osatua dago eta zortzi negozio-unitate estrategikoren inguruan lan egiten dute. 2002 urtetik Mondragon korporazioaren egituraren barne dago Ulma.

INFORMAZIO +

Automobilgintzako langileak trebatzeko kontratatu du Mondragon taldea Marokok

Mondragon korporazioko Alecop kooperatibak akordioa sinatu du herrialde horretako hiru ministerioekin, Kenitra industrialdean kokatutako automobilaren inguruko prestakuntzarako bikaintasun zentroa kudeatzeko.



INFORMAZIO +

Gizarte esku-hartze arloko 29 entitate aukeratu ditu Eusko Jaurlaritzak jardunbide egokien gida batean

EAEko gizarte esku-hartze eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak eskatzeko hurrengo deialdian parte hartzeko asmoa duten gizarte entitateei euren proiektuak hobetzeko ideiak emateko asmoz argitaratu dute dokumentu hori.



INFORMAZIO +

Mondragon taldeak Kiro Robotics enpresa sortu du osasunaren sektorea modernizatzen

Korporazioak, Mondragon Health unitatearen bitartez, sektore soziosanitarioan duen presentzia handitu eta ospitaleko prozesuen automatizazioaren negozioan barneratzeko asmoa du.



INFORMAZIO +

Zerealaren prezio altuak nekazari elikagaien kooperatibak kezkatzen ditu, uzta "oso ona" izan den arren

Sektoreko entitateen datuen arabera, 144.000 tona gari, 75.000 garagar eta 25.000 olo jaso dituzte Araban. Emaitezkin pozik agertu arren, baieztatu dute merkatuko prezioek "oso altu" jarraitzen dutela (tonako 200 euro inguru), eta horren eraginez zerealaren inportazioa areagotu dela.



INFORMAZIO +

Ederlanen proiektu berriaren ezarpenaren zuzendaritza. Txinako Kunshan hirian ezarriko da kooperatiba hori eta 10.000 m²-ko espazioa hartuko du 30.000 m²-ko lursail batean. Industrialde berean, Cikautxo kooperatibaren ekoizpen lantegi proiektua burutuko du aurten; eta Danobatgroup-entzako fabrika berri bat eraikiko du Indian, Mondragonek Pune hirian duen industrialdean, 8.000 m²-ko partzela batean.

IRIZAR KOOPERATIBA AUTOBUS INTEGRALAK KOMERTZIALIZATZEN HASIKO DA EUROPAN

Irizar kooperatiba autobus integralak saltzen hasiko da Europan aurten. Proiektua 2009an sortu zen Belgikan egindako sektoreko azokan, eta ostera lan handia egin behar izan du euskal enpresak prototipoen eta aurreserien garapenean eta homologazioetan.

CIKAUTXOK INDIAN FABRIKATUKO DU BERTAKO BAZKIDE BATEKIN ELKARLANEAN

Cikautxok, Mondragon korporazioaren kide den Bizkaiko kooperatibak, hitzarmena sinatu du tutueriak fabrikatzen dituen Indiako Taurus Flexibles enpresarekin. Horrela, Pune hirian kokatua dagoen negozioaren %50 bereganatu du. Joint venture berriari Cikautxo Taurus Flexibles izena jarri diote. Horrek automobilgintzaren merkaturako hodiak fabrikatuko ditu eta 200 langile izango ditu. 2012ko martxoan amaitzen den ekitaldi fiskalean 9,5 milioi euroko salmentak aurreikusten dituzte.

RIPESSE EUROPA SAREAK EREDU EKONOMIKO BERRI BATEN ALDE LAN EGINGO DU

RIPESSE Europa (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sustapenerako Kontinentarteko Sarea) sortu dute 12 herrialdetako erakunde ezberdinetako 150 ordezkariaren artean. Sare horrek eredu ekonomiko berria defendatzen du, egun "kodzian eta espekulazioan" oinarrituta dagoen sistema "zaharkitua" gainditzeko. Planteatu dituzten proposamenen artean aipagarriak dira demokrazia partizipatiboan oinarritutako eredu sortzea eta ekonomia desberdin bati bidea irekitzeko "finantza-erakunde desberdinak" eratzea.

ENPRESA ERANTZUKIZUN SOZIALAREN ETA MINUSBALIOTASUNAREN EUROPAKO SAREA JAIO DA

Enpresa Erantzukizun Sozialaren eta Minusbaliotasunaren Europako Sarea sortu zuen, uztailean, ONCE fundazioa buru duen eta sektore anitz biltzen dituen talde batek. Proiektu berriaren bazkide dira L'Oréal, Telefónica eta Italiako Lan eta Gizarte Politikaren ministerioa, besteren artean. Europako Gizarte Funtzak kofinantziatzen duen 2007-2013ko Diskriminazioaren aurka


Lantegi Batuak enplegu-zentro bereziak BBVAren III. Integra saria jaso du

Bizkaiko enpresak 200.000 euroko saria jaso zuen, minusbaliotasunak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen aldeko proiektuak garatzen dituzten beste sei entitatekin batera. Proiektu sarituek xede dute, gainera, aukera berdintasuna areagotzea eta kolektibo hauen bizi kalitatea hobetzea.

INFORMAZIO +



Borrokatzeko Programa Eragilearen 4. Ardatzean zehazten diren nazioz haraindiko lankidetzaren helburuei erantzuten die ekimen honek.



Beste **behatoki**
batzuen
buletinak

Irailak 29 eta 30

International Workshop on Accounting for Cooperatives. Valentzia.

[Informazio gehiago](#)

Irailak 30

Jardunaldia: 'Gizarte Erantzukizun Korporatiboa. Berau ezartzeko nazioarteko jardunbide egokiak'. Bartzelona. [Informazio gehiago](#)

Urriak 6

Gizarte Ekonomiaren Lege berriari buruzko jardunaldia. Valentzia

[Informazio gehiago](#)

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara eta mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipini